

# Epaiketa politikorik ez!

Madrilen bi epaiketa hasi berri dira, bata SEGIIn lan egitea egozten zaien 40 gazteren aurka, eta bestea Herri Batasunako Mahai Nazionaleko, Batasunako eta Euskal Herritarrok koalizioko zuzendaritzako kideen aurka.

Auzibide hauen oinarria espekulazioak dira, eta hauen xedea, berriz, estatuaren etsaitzat hartu dituzten pertsonen estigma sozial bat leporatzea, gero zigortzeko. Pertsona hauen inguruan ezin izan da egintza konkretu bat ere erabaki ETArekiko lotura edo lankidetzaren frogatze aldera. Horrenbestez, "ingurune"aren tesia berreskuratu dute, hots, espazio ideologiko edo kulturalarena: kontu guztiz lausoa eta zuzenbidearekin zerikusirik ez duena. Astakeria honi beste bat gehitu behar zaio, txosten polizialak akusatuen aurkako froga automatiko bihurtzea alegia.

Gure herriko jurista ezagunek eta beste hainbat pertsona ospetsuk ohartarazi dute hain zuzen 35/02 sumarioa ("herriko tabernen" auzibide deitu dutena) abusuzko kausa bat dela. Honelako astakeria bat "Etsaiaren Zuzenbide Penala"ren baitan besterik ezin da kokatu: norbait zigortzea erabakitzen da ez egin duena medio, pertsona hori arriskutsua dela uste delako baizik, ezer egin ez badu ere. Horrek pertsona horien oinarrizko askatasunak urratzen ditu, baita pluralismo politikoa ere; izan ere, prozesu hura azkenean ilegalizatu egin zituzten indar politikoek pairatu baitzuten. Beraz, sinatzen dugun sindikatuon iritziz prozesu hau ez zen sekula hasi behar izango, eta are gutxiago epaiketa fasera iritsi.

Gogoratu beharra dago, gainera, kasu honen instrukzioan zenbat oker, arbitrariedade eta gehiegikeria egin den: beharrezkoak ez ziren atxiloketak, justifikaziorik gabeko inkomunikazio egoera orokorrak, pertsona bakoitzari zegokion arrazoirik gabeko atxiloketak, fiantzatan xahutu diren dirutzak, kontrol

neurriak (kontu korrante blokeatuak, estatutik irteteko mugak, aldian-aldian sinatu beharra), txosten tendentziosoak... Hau guztia, gainera, 10 urtetik gora luzatu da. Auziperatutako pertsonak, bestalde, legezko erakundeetako militante ziren instrukzioan sartu zituztenean.

Azkenik, gogoratu beharrekoa da epaiketa hauek une historiko jakin batean egingo direla. Nazioarteko batzorde batek –gehi hainbat eragile sindikal, patronal eta politikok eta Eliza katolikoak– egiaztatu egin dute ETaren jarduera armatua amaitu dela. Halaber, Ezker Abertzaleak jarduteko dituen erakunde eta alderdi politikoek demokratikoa ez den prozedura oro baztertu dute, eta giza-eskubideen funtsezko urraketa guztiak arbuatzen dituzte. Gainera, nabarmendu egin behar da auziperatu askoren lana, zeinari esker agertokia aldatu egin baita; dagoeneko borroka armaturik ez da, eta euskal gizartea aro historiko berri batean sartu da.

Horregatik, gure ustez sumario eta auzibideok guztiok prozesu politiko bat dira, eta eraso egiten diete euskal jendardean pluralismoa errespetatuko duten bizikidetzaren esparruak eraiki nahi duten guztiei. Horregatik, honakoa exijitzen dugu:

- **Beste epaiketa politikorik ez izatea**
- **Instrukzio judizial arbitrarioetan oinarria duten auzibide guztiak bertan behera geratzea**
- **Prozesu judizialean bazter dadila etsaiaren zuzenbide penala aplikatzeko joera**
- **Errespetatu daitezela, baldintzarik gabe, pluralismo politikoa eta elkartzeko, askatasun ideologikoa izateko eta adierazteko oinarrizko eskubideak**
- **Bizikidetzaren demokratikorako oinarri sendoak ezartzea**